

Irakurketa kluba zabalduko da Laudion haur eta gurasoen artean irakurketa giroa sortzeko

6-7 urte bitarteko ume baten edo gehiagoren gurasoa bazara, Laudion abian jarriko den Irakurketa Klubean eman dezakezu izena. Ekimen hau ordu eta erdiko hiru saiotan emango da urriaren 23an, azaroaren 20ean eta abenduaren 11an. Irakurketa Kluba hau umeen artean irakurzaletasuna suspertzeko Bularretik Mintzora egitasmo zabalagoaren barruan kokatzen da. Programa honetan, udalerriko ikastetxeek hartzen dute parte eta baita udal liburutegia ere. Garapenaz, formazioaz eta abarrez Galtzagorri elkarteak arduratzen da.

LABURPENA

Egunak: Urriak 23, azaroaren 20 eta abenduaren 11 astearteetan.
Ordutegia: 18:00-19:30

Tokia: Udal Liburutegia (Lamuza, 19 - Laudio)

Adina: 6-7 urte bitarteko umeak eta euren gurasoak

Hizkuntza: Euskaraz

Izen-ematea: Bete ezazu ESKABIDE hau (gainean sakatu) eta eraman ezazu beteta Udal Liburutegira. Leku mugatuak. Doakoa.

Helburuak: Haur eta gurasoen artean irakurketa giroa sortzea, kalitatezko euskal bibliografia ezagutzea eta liburuaren iruzkinak sustatzea.